

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

KANPEZUKO UDALA

Behin betiko onarpena ematea zerbitzu publikoak emateagatik eta administrazio jarduerak egiteagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen ordenantza aldatzeari

Udalbatzak, 2018ko martxoaren 6ko ohiko osoko bilkuran, behin-behineko onarpena eman zion zerbitzu publikoak emateagatik eta administrazio jarduerak egiteagatik kobratu beharreko tasak arautzen dituen ordenantzaren aldaketari. Aldaketa horri behin-behineko onarpena ematen dion erabakia jendaurrean egon den bitartean, haren aurkako erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, behin-behineko erabaki hori behin betiko erabaki bihurtu da, Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauaren 16.3 artikulua eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49.c) artikulua xedatutakoarekin bat etorritik.

Foru arau horrek 16.4 artikulua eta TAOLEk 70.2 artikulua xedatutakoa betez, oso-osorik ematen dira argitaratzen diren testuak eta ordenantza berriarenak:

6.3 Igerilekuak

6.3.2 Tarifak.

6.3.2.1 Urteko abonamendua.

% 65 edo gehiagoko ezintasuna egiaztatzen dutenek % 50eko hobaria izango dute tarifyan, ezintasun hori indarreko agiri ofizial bidez egiaztatzen dutenetik aurrera.

Familia ugariak % 30eko hobaria izango dute tarifyan, egoera hori indarreko titulu edo agiri baten bidez egiaztatzen badute. Hobari hori familia unitateko kideei aplikatuko zaie abonamendua egiten den unean.

Tarifa ordaintzetik salbuetsita egongo dira aldi baterako harrera egoeran dauden pertsonak, egoera hori era sinesgarrian frogatzen badute.

6.3.3. Aplikazio arauak:

- a) Bost urte edo gutxiago dutenek ez dute tasarik ordainduko.
- b) Tasaren ordainketa dela eta, haur tarifa 6 eta 15 urte bitartekoek, horiek barne, ordainduko dute.
- c) Indarrean dagoen gazte txartela aurkezten dutenek abonamendua egitean edo sarrera erostean, % 10eko hobaria izango dute tarifyan.
- d) Hobariak ezin dira pilatu, eta ehuneko handiena duen hobaria aplikatuko da.
- e) Tasa (aipatutako zenbatekoa gutxienez) udal altxortegian ordainduko da zuzenean edo banku bidez helbideratuta (erabiltzaileak jakinarazi beharko ditu beharrezko datuak), betiere zerbitzua eskaini edo jarduera egin aurretik. Bankuan helbideratuz gero, ordainketa ziurtagiria udal bulegoetan aurkeztu beharko da abonamendua jaso aurretik.

f) Tarifak aplikatzearen ondorio diren kuotak ezin dira ez denboran banatu, ez eta murriztu ere, eta ordainagiri bidez kobratuko dira.

Santikurutze Kanpezu, 2018ko maiatzaren 8a

Alkatea

IBERNALO BASTERRA TXASKO